

Anaitasuna

V URTEA - N.º 51

Suplemento a la Hoja
ANAITASUNA de Guipúzcoa

Agostua (8) 1958

Gure anaien atsekabea

Kristiñau kalendarioan, agostuko egunik ospatsuen a Asuntziño eguna da. Aurten gaiñera, egun orrek ospe aundiagoa euki dau, munduko kristiñau guztiak, Aita Santuaren erreguz, Ama Virgineari bederatziturren bat egin deutse, edo egin bear izan deutseta.

«Aundia da —diño Aita Santuak— Ama Virginearen bitartekotasunean daukogun konfiantzea. Orregaitik gura dogu, Asuntziño aurreko bederatziz egunetan mundu guztiko katolikoak Eleiza persegiduaren alde aparteko otoitzak egin daiczala.

Andra Mariaren bitartez eskatu beioe Jaungoikoari: Eleizearentzako, bere eginkizuna mundu onetan kumpletako askatasuna; eleizgizonentzako, euren ministerioa eragozpen barik egiteko libertatea; kristiñau persegiduarentzako, egiatzko fedean irauteko indarra ta argia.

Erregutu beioe Ama Virgineari: eskoletan, unibersidadeetan, fabriketan eta osterantzeko lantegietan diarduen gazteak, marxismoaren, ateismoaren eta hedonismoaren azpian jausi ez daitezala, eta kristiñau zintzoak izateko adorea ta argia euki daiela. Eskatu beioe berari: Kristoren dotriñeak edonon ateak zabalik aurkitu daizala, eta danak jakin daiela, egiaren eta karidadearen kontra luzaro ezin joan leitekela.

Erregutu azkenik persegitzailleen alde: zeruko graziak noizbait argitu daizala, eta gero ta gero-bere egiatzko bidera etorri daitezala.»

Katoliko guztien otoitzak eskatu ostean, exhortaziño onegaz amaituten dau Aita Santuak bere enziklika: «Baiña zuen erreguak Jaungoikoaren aurrean indarra euki daien, naitanaiez aldatu egin bear dozue obarantz

zuen oraiñarteko bizimodua. Eskiñi Jaungoikoari, zuen oraziñoakaz batera, zuen sakrifizioak, zuen penitentziak, zuen virtutezko egintzak, zuen penak, atsekabeak eta doloreak. Ori egiten badozue, Jaungoikoa seguru bai seguru errukituko jatzue.»

* * *

Betiko lez, Aita Santuak Jaungoikoaren izenean berba egin deusku, eta bere irakaspentak guztiz importantek izan dira.

Oraziñozko bederatziturren bat eskatu deusku, komunismoaren eta osterantzeko arerioren menpean bizi direan kristiñau anaien alde erregututeko.

Komentario luzeak egin leitekez, gure anaia errukarriori lagunduteko daukogun obligaziñoa dala-ta.

Gaur egin deiogun geure buruari preguntatu au bakarrik: Gutariko zenbatek egin ete dabe bederatziturren ori? Gutariko zenbatek erregutu ete deutse Ama Virgineari, galtzairuzko oialaren beste aldean bizi direan kristiñauakaitik? Gutariko zenbatek jaramon egin ete deutse Aita Santuaren deiri?

Individualismoa da gure eriegiñoaren areriorik aundienetarikoa. Individualismoa da euskaldunen defekturik kaltegarriena.

Gu kristiñauok bat eginda biziko bagiña, gure anaien bearrizanak geureak lez sentiduko bagenduz, batak besteari biotzez lagunduko bageuntso, orduan, eriegiñoaren arerio ta peligru guztiak gorabeera, kristiñau erria ez litzake ezeren bildur izango, eta danok biziko gintzakez bakean.

Berriatua



EMAKUMEAREN TZAKO

Munduko neskarik politena

Artikulu onetan, gizon eta andra, guztiok dankagu zerikasi. Baiña emen esaten dana obeto dator emakumeentzat, naiz ama direanentzat, naiz matrimoniño santuan ama izateko vokaziñoa daukenentzat. Artikulu onen idazlea, Armi Kuusela da, 1952 urtean Miss Mundu izanikoa. Au da, urte orretan, mundu guztiko neska gazteen artean politena, liraiñena, virtutsuena, maitagarriena izanikoa.

Orain ez deusku esango zelan egin zan Miss Mundu. Beste gauza bat esango deusku. Berak idatzita jakingo dogu, zelako bideetatik ekarri eban Jaunaren graziak protestantismotik katolizismora, eta zelako ardueagaz aintzat artu eban bere erlegiño barria.

Helsinki, neure aberriko kapitalean estudiantean nintzala, nire lizeoko ikaslagunak "politasun konkursu"-an parte artzeko eskatu eusten. Apur bat iñozentexua nintzan, eta ez neban ulertzen, orrelako bideetan noraiño joan neinteken. Eskerrak Jaungoikoari! Bere Providentziak asma miragarriak eukiten ditu, eta berak daki gure pausu okerrak geure onerako bihurtuten.

Miss Finlandia egin ninduenean eta Miss Mundu izateko eskatu eustenean, nire ilusiñoak eta gurariak ez zirean aundiak: Diru apur bat egin eta bizi al izateko empleutxu bar artu; avioi aundietan edo transatlantikoetan kamarera izan, eta bide batez erri aun-

diak ikusi ta munduari vueltea emon. Orrexez zirean nire ilusiño guztiak.

California-ra urten nebanean, adiskide batek esan eustan: "Agur! Laster ikusiko zaitugu artista eginda, Ingrid Bergman eta Greta Garbo baiño fama aundiagoaz." Eta nik erantzun: "Jaungoikoak ez daiala gura izan olako gauzarik niretzat." Mundu zinematografikoa ez jatan gustetan, neure emeretzi urteakaz bildur nintzalako, taitu orretako arazoetan eginkizun gatxen bat etorriko ete jatan. Baiña ez jatan buruan iñoiz sartuko, California-rako bide ori izango zala niretzat Damasko-ra bidea, egiazko fede santura ekarriko nindua.

New York-era eldu nintzanean, uri orretako periodistak jaialdi aundi bat atondu euskuen Waldorf Astoria hotelean. Esan eusten, konkursuko bigarren edo irugarren lekua irabaziko nebala, eta eskiñi eustezan ziñerako eta propaganda lanetarako kontraturik asko.

An ezagutu neban "Clin", Filipinas-etako neskatxa lirain bat, bere aberriaren izenean konkursura etorrena. Mutil gazte bat ekarren lagun, dempora gitxi barru neure gizona izango zana. Laster gogaitu nintzan Waldorf Astoria-ko zeremoniakaz; eta jai amaitu orduko andik urtenda, Miss Filipinas eta bere lagunagaz neure hotelera etorri nintzan, zerbait jateko asmoz, gose, benetan gose nintzalako.

Apari artean artu neban mutil aren ezau-
pidea. Gil zan bere izena, ingenierua, kon-
tratista baten semea. Gizonak emakume ba-
tegaz lenengoz berba egiten dabenean, ez
dabe erlegiñozko ardurarik agertzen. Baiña
arek, lenen lenengo auxe preguntatu eus-
tan: "Ze erlegiñozkoa zara?" Benetan olge-
tan erantzungo neutsan: "Zuri zer deutsu
ardura?" Baiña ez. Beingoan konturatu nin-
tzan, intentziño onagaz egin eustala pregun-
tea, eta garbi garbi esan neutsan luterana
nintzala. Berak esan eustan katolikoa zala,
ta anaia bat eukola sazerdote jesuitea.

Gerotxuago, Miss Mundu egin nindue-
nean, Long Beach-en alkar ikusi genduan,
eta lenengoetarikoa izan jatan zorionak emo-
ten. Eta Filipinas-etako "sampanguita" lora-
kaz egiñiko koroï bat eskiñi eustan, berta-
tik avioian ekarrita. Beste koroï bat-bere
emon eustan: perlazko errosario bat.

Urrengo egunetan, Metro Goldwyn Ma-
yer zinema etxea ikusten joan nintzan. An
idunetik eskegita eroaten neban errosarioa,
eta ea katolikoa ete nintzan preguntetan
eusten. Ezetz erantzun bear, egia esateko;
baiña orduan genteak, apur bat arrituta,
eruki izaten ninduan.

Gil-eri deituta, esan neutsan ea zegaitik
artzen ninduen ain errukarri, katolikoa ez
nintzalako. Gil-ek explikatuta eustan, Jaun-
goikoaren Providentzia zer dan eta errosa-
rioa zetarako dan.

Nire izakera barri onetan, bakartade aun-
di bat sentietan neban neure barruan. Gu-
rako neban, neure ama neugana ekarri Fin-
landia-tik. Baiña ondo nekian, ori ezin izan-
go zala. Gil-ek esan eustan Ama Virgineari
laguntzea eskatuteko, eta orretarako Agur-
Maria errezetan irakatsi eustan.

Arratsaldean, empresarioak eta fotogra-
foak ez eusten bakerik emoten. Noizbait
sartu nintzan neure gelan, eta negarrari
emon neutsan. Alan ta guztiz-bere, errezatu
nituan errosarioko berrogetamar Agur-Ma-
riak. Eta oneexek berbak ezpanetan neuko-
zala: "...erregutu eizu gu pekatariõ alde

orain eta gure eriotzako orduan" artu nin-
duan loak.

Urrengo egunean eleiza batera eroan nin-
duan Gil-ek. Errosarioko Ama Virgineari
bederatziruuren bat egiten egoan gentea. Gil
belauniko. Ni zutunik, gentearen barruko
argitasuna ta poza euren aurpegietan begira.
Gil-ek urten gura. Nik ezin urten, dana
ikusi artean. Alantxe egon giñean; eta az-
kencan, beste guztien atzetik kaporatu
nintzan.

Honolulu-n (Ozeania-ko Hawaii isletan)
egotaldi bat egin gura izan neban. Baiña
antxe sentidu neban iñoizko naibagerik aun-
diena, erlegiñoa geiago ta obeto jakin naia-
gaz. Eta dei egin neutsan Gil-eri telefonotik
Los Angeles-era. Tokio-n alkar ikusiko gen-
duala erantzun eustan; eta esan ta egin, an-
txe aurkitu neban aeroportuan. An San
Frantzisko Xabier eleizara eroan ninduan,
Aita Mahoney jesuiteagana.

Aste bete osoa egin neban Japon-go ka-
pitalean, Jesuiteagaz erlegiñoa ikasten. Ge-
ro, Gil eta biok Manila-ra joan gintzazan.
Filipinas-etan beste ambiente bat aurkitu ne-
ban. Niretzako egiten zirean-errezibimen-
tuak, Manila-ko familia etxe onak emoten
eustezan; familia askok euren kapillaua eu-
ken, eta bein baiño geiago etxeokakaz me-
zea entzun neban.

Bein baten, Gil-ek bere emaztetzat gura
ninduala esan eustan, eta orretarako bere
erlegiñoa artu bear nebala. Nik baietz. Bai-
ña Gil-ek, ezkondu orduko, bateatu bearko
nintzala gaiñeratu eustan. "Nire bizitzako
momenturik aundiena bautismoa izango ba-
da —erantzun neutsan nik— antxe bateatu
gura dot, katolikoa izateko erabagia artu
neban-lekuan". Eta alantxe, Tokio-n erri pa-
gano aretan bateatu ninduen 1953-an, Paz-
koetan, eta biaramonean ezkondu.

Orain ama naiz, benetan zorionsua. Nire
zorionak gaiñezka egiten deust barruan; eta
Miss Mundu izateak emoten deustan glo-
riak eta satisfaziñoak ez dauko zerikusirik,

ama izateagaz daukodañ gozotasunaren aldean.

Ama izatera eldu naizanean ikusi dot lenengo, universuaren jaube izatea zer dan. Ementxe, neure alboan, neure kuman daukodañ mutiltxua da nire mundua.

Emen Filipinas-etan, familia aberatsak dauken oitureari jaramonik egin barik, ez dot ugazamarik ekarri gura izan, nire seintxuari titia emoteko. Amatasunari jagokon gauza txikienik-bere ez dot galdu gura. Dana jakin nai dot, neugan neuk ikusita baiña.

Arnaldotxu-k urte bi daukoz. Neuk irakatsita ikasi dau lenengo pausuak emoten. Onetarako metodu artifizialik ez dot erabili. Neure agotik ikasi ditu ingeleseko lenengo berbak. Finlandeseakoak bardin. Laster emongo deusat, uste dot, arreatxu bat, eta gero anai-arreatxu asko.

Orain neure aberri barri onetako oiturak eta tradiziñoak neuretzat artu gura dodaz. Edo —bardin da— Filipinas-ek artu naiala neü oso osorik beretzat. Eleiza funtziñoak asko gustetan jataz. Oneek eleizkizunok Filipinas-etako bizitza sozialaren parte printzipala dira.

Ikasi dot emengo erara jatekoa egiten. Arnaldotxu-ri egin deusadan lenengo janaria, neure amaginarrebari ikasita dakit: arroz egosia, ain gustora ume filipino guztiak jaten dabena.

Finlandia-tik ona dagoan distantzia, aundia da. Beñolako Miss Mundutik oraingo etxeoandreganaiaño. dagoana, benetan aundia. Baiña au ez da ezer, orain ibilteko daukodañ bidearen aldean. Umeak ondo azi: auxe da nire aurrerantzerako obligaziñorik aundiena. Neure umetxuari edukaziño on bat emon, Jaungoikoak mundu onetan izentatu deusan eginkizuna betetan eureri lazundu.

Nire zorionik aundiena, bete betea, oso osoa, mundu onetan, auxe izango litzake: Neure alabatxu bat monja izatea, neure seinetxu bat sazerdote izatea.

Aingeru

ABERASTU ZURE

EUSKEREA

Ona emen, ANAITASUNA-ren numeru onetan agertutako berba batzuk:

ADIERAZO, azaldu, jakin eragin.

ALDATU, kambiatu.

ALDRA, taldea, pilloa. *Gizon aldra bat etorri zan.*

ARRISKU, peligru.

ATZERRITAR, kampotar.

BIRIAK, pulmoiak.

EGUNDO, iñoiz, eguno. *Ez dot egundo ikusi gizon ori.*

ERETI, momentu egokia.

GELA, kuartua. *Gelan sartu nintzan.*

GERTATU, pasatu, jazo. *Beti gertetan da ori.*

GERTU, prest / prestatu, preparatu. *Gertu nago. Aparia gertu dogu.*

GIZARTE, soziedade, gizonen arteko bizitza.

GUENEAN, ostean. *Bost illebeta guenean.*

HEDONISMO, gizonaren bizimodua, gauza guztien gainean zentzunen atsegia ipinten dauana.

IDORO, aurkitu, topatu.

IDUN, samea, kokota.

IÑOAN, esaten eban.

JARAMON EGIN, kasu egin.

JOLAS, jokua, olgetea.

KRITIKO, artezko naiz espirituzko obra baten gainean eritxia emoten dauana.

Kritikoen ustez, "Cabiria-ren gabak" pelikula ederra da.

LIRAIN, polita. *Neska liraiña.*

MOTX, laburra. *Ule motxa.*

NEKATU, kantsatu.

OITURA, kostumbrea, ekandua.

OLDOZTU, pentsatu.

ONURAGARRI, probetxugarria.

SEIN, umea. *Seintxuari titia emon.*

TAIU, itxurea. *Ze taiuzkoa da gizon ori?*

TRADIZIÑO, aintxiñatik gunganaiaño, bat besteari esanda, etorri dana. *Kristiñau tradiziñoak irakasten deusku ori.*

UGAZAMA, aiña, umeari ugatza emoten deuson andrea.

URDURITASUN, artegatasuna, ardurea.

URI, erria. *Errigoiti-ko uria.*

ZEZENAK PLAZAN

Erriko zaindariaren jai nagosiak zirean: Andra Mari ta Sandrokeak.

Gure erri geienetan, guztietan ez esatearren, senide eta adiskide, Bilbotik-eta etorrita, konbidauak izaten zirean. Geure poza, arrokeria eta atsegiña izaten zan, bako txak bere etxean, iru edo lau edo geiago konbidau izatea. Neure adiskide batek bein, kanpotik inor etxakala etorri ikusita, lenengo kalean idoro eban eskekoa eroan eban etxera, eta beragaz maian bazkaritan jarri.

Emakumeak—etxeoandra eta alaba nagosienak beintzat—bazkari on, ondo ornidu eta ugari bat gertuteko, etxean geratzen zirean artean, gizonetzkoak, zar eta gazte, atzeritar edo kanpoko eta erriko, meza nagositara joaten giñean.

Onetariko bilbotar konbidau bat joan zan ba, urte aretan bere, amarretako meza-tara. Ebangelio ostean aurreratu zan entzuleakanantz Parroku jauna, Don Basilio Diaz de Espada; eta asteko barriak emon ondoren, esan eban, meza ostean urtearo lez prozesiñoa izango zala.

Gure bilbotarrak ez eban antza ezer ulertu, eta aldamenean jezarrita eukan gizon bateri itaundu eutsan erderaz:

—Abade jaunak zer esan dau?

Eta besteak, bat batera eta serio serio erantzun eutsan:

—Ba... gaur arratsaldeko lauretan zezenak izango direala erriko plazan.

Arrituta geratu zan kanpotarra, ori entzun ebanean, anuntzio ori eleizarako egokia ez zala iruditu jakon-da. Eta bazkalorduan konbidauta egoan etxera eldu zan bai-zen laster, didar egin eban:

—Jesus, eta Jesus milla bider! Olakorik sekula ezta inoiz ikusi, ez inon entzun bere!

—Baiña, zer entzun dozu, edo zer ikusi dozu, edo zer diñozu ainbeste zaratagaz? itaundu eutsan etxeoandreak.

—Zer entzun diñozu? Ara: neuk eztot ezer ulertu, Parroku jaunak erderaz egin dau-ta; baiña neure alboan jezarrita egoan gizontxu bateri itaundu deusat, abadeak zer inoan, eta... arratsaldeko lauretan zezenak plazan izango direala esan dabela erantzun

deust. Eta ori, neugaz bat izango zarie guztiok, eleizetan iragartea eztala egoki egokia deritxat.

—E...? Abadeak ori esan dabela...? Benetan arritzekoa da. Baiña goazen geldiro, eta esan egidazu: Ze moduzkoa-edo, ze taiuzkoa-edo izan da zeure aldamenean jezarrita egoan gizon ori?

—Ba... txiki samarra, zimeltxua, eta lebita ta guzti, baltzez, ondo jantzia.

Andreak pixka bat oldoztuta gero:

—Ba..., ba..., ba..., ointxe amaitu dozu. Ori, zuzen bera Tomas jostuna, Atxirika sastrea da. Eta arek, beti lez, umore ona eta nornairi ziria sartu eta adarra joteko, gogo obea. Onezkero, berak bere kontau dau etxean. Eta guztiak, zure lepotik, barreka daukazuz. Zezenak plazan, e...? Ezta izan zezen txarra zuretzat beintzat Atxirika zirin eta zital ori.

“Zezenak dira, gaiztoak dira.

Arrapatzen bazaitu,

Bertan bertan ilgo zaitu.”

Zur ibilli bear da, gizona, zur!

Belu

«ANAITASUNA» DE VIZCAYA

DIRECTOR:

P. Manuel Berriatua

PP. Franciscanos, Bermeo, Vizcaya

ADMINISTRADOR:

P. Teófilo Arzallus

PP. Franciscanos, Zarauz, Guipúzcoa

Irakurri Bizkaiko ANAITASUNA

Eskatu Zarautzera

Urte beteko suskriziñoa: 12 peseta



Balentin Berrio-otxo Doatsuaren Kartak

XIII

Manila-n, 1857-garren urtian

Amatxo maitia:

Zenbat gau galdu ditu,
Cadiz-tik urten genduan ezker?
Eta nik sosigu andiyan
Pasatu ditut lo
Itxasuaren erdiyan.
Egunak kontatzen egongo zan,
Sustoz beterik karta au artu artian;
Eta osasuna bakiagaz
Egon da gure artian.
Jaungoikuari milla esker,
Faltatu etxaku ezer;
Beti euki dogu mai ona,
Eta egunian eguniango ogi biguna.
Lau euskeldun-bere etorri gera;
Noizian bein itz egin dogu euskeraz.
Bat zan San Frantzisko frailia,
Eta bera Otxandio-ko semia.
Andrakunia beste bat:
Irun-en zituan bere asabak.
Beste batek eukan barkuaren agindua,
Eta au zan Bermio-n jaiua.
Fraile dominikua laugarrena:
Semia da Mari Elizalde-na.
Pixka bat luzetu da gure viajia;
Aiziaren faltiak dauko kulpia.
Bost milla legua ibilli gera,
Eta estutasun gutxitan ikusi gera.
Virgiña Mariyaren amparuan

Galduko giñian ba itxasuan?
Bost illabete guenian
Lurreratu giñian:
Zer pozik Virgiñaren arpegiyan
Ipiñi nituan nere begi biyak.
Nork explikatu
Virgiña onen edertasuna?
Askori emoten dio
Gorputzeko eta arimako osasuna;
Bera da zitudade onetako ondasuna.
Viva gure Virgiña Mariya!
Beria izan dedilla biotz guztiya.
Amatxo, bete dot iya papela;
Uste dot gaurko asko dabela.
Agur diot gurasuari,
Gorantziyak ezkonbarriari.
Don Ignazio Retolaza
Eta beste kabilduko Sazerdote Jaunak,
Artu dizatela
Neure eskumunak.
Santa Ana-ko fraile
Eta monja guztiyak,
Jaungoikuari nigaitik
Egin deiyela erregu andi yak.
Agur! Kumplidu senide guztiakin.
Apenas kabituko da emen. *Valentin.*

XIV

Manila-n, 1857-garren urtian

Nere amatxo maitia:

Zelan dago gure gentia?
Ixilik dago kartia;
Akaso erratu egingo eban bidia;
Izanik ain luzia,
Ezta milagro andia.
Oindiño ba-daukat esperantzia,
Leiruteko amaren letria;
Alperrik ikaraz egon plumia,
Amoriyuak ventzitzen dau guztia.
Ze gente dira ezkonbarriyak?
Gente honratua emon oi dau Urruti yak.
Pruebak emongo ditu lengusiña Mariyak.
Amatxo, ba-da berori bapere makurtu?
Ai! Urriak iñori ezteutse barkatu;
Oindiño ezta ainbeste atxotu;
Ardatzian nork berori ventzitu?
Baiña urtiak gaitik ez ikaratu;
Jaunaren bidurrian bizitza bada pasatu,
Il barik ezta iñor zeruan sartu.
Txoruentzat utzi deigun mundua;
Jauna maitatzen badaukagu biotz berua,

Ezta faltako zeruan ostatua.
 Alperrik lurrian nekez jan artua,
 Bizitza pobria zezurako da atajua:
 Ez larregi desiatu dirua.
 Alperrik izan urria ederra,
 Galtzen bada gure arima bakarra,
 Ezta faltako begiyan negarra,
 Ez lepuan sua eta gaira.
 Errosariyo sendua eskuan,
 Aita guria eta Ave Mariak aguan,
 Pensamentu santuak buruan:
 Ze gauza ederragorik munduan?
 Ea bada, ama guria!
 Deiez dago berorren semia;
 Euki daigun biotza garbia,
 Zergaitik dan Jaunaren legia.
 Inoz badau pekatuak loitzen,
 Zergaitik ez gera eleizan sartzen?
 Aingeruak zeruan asko dira postutzen,
 Pekatariak pekatua dabenian konfesatzen.
 Aita Santo Domingo-ri nigaitik erregutu,
 Eta Mariya Virginiagaz ez aztu;
 Oraziño ondo egiñak
 Apurtu oi dioz diabruari agiñak.
 Laster utziko dot Manila;
 Visitatzen noia gentila;
 Izanagaitik gizon txikiya,
 Azi biar dot bizar andiya;
 Tapatzen danian aurpegiya,
 Orduan bai ni ikaragarriya.
 Agur, ama! Ondo bizi;
 Ez larregi burua ausi.
 Agur, urrengo artian!
 Ba-dao diversiñua kartian;
 Biotza, bada, nasaitu dedilla;
 Ondo dago berorren mutilla.
 Leituko ditu letra onek?
 Ala uste dau *Valentiñek*,

XV

Macao-n, 1858-garren urtian

Hermana Maria Antonia:

Alperrik zuk niri ez eskribitu,
 Lau verba esan biar deutsudaz.
 Lenengo ta bat:
 Hermana Luisa-ri
 eskribitu deutsadan guztia
 Igual da zureztat.
 Bigarren: Ez aztu Ama Virginiã
 Biotz biotzetik maitatzen;
 Berari gusto eman nai badozu,

Atentziño aundiagaz
 Errosarioa errezatu egiozu,
 Eta egunian egunian
 Mortifikaziñoren bat eskiñi egiozu.
 Irugarren: maitatu egizu
 Asko zure zeldia;
 Eta nezesidaderik eztaguanian,
 Ondo da ortik ez urtetia;
 Aintxe ondo entzungo dozu
 Jesus maitiaren verbiã:
 Auxe da alegre bizitzeko bidia.
 Laugarren: Oraziñuari
 Euki egiozu afiziño andiya;
 Oraziño barik ez zera izango
 egiazko monjia;
 Zeure lanen erdietan
 Jaso biotza zerura:
 Antxe daukagu geure
 Ondasun guztia.
 O nere biotzeko
 Jesus maitia!
 Larri dabil
 Emen gentia.
 Noiz libratuko da
 Gorputzeko sokia?
 Noiz izango naiz
 Guztia zuria?
 O zelan luzetzen dan
 Neure bizitzia!
 Egin bedi gauza guztietan
 Zeure vorondatia.
 Agur, Hermana;
 Agur, zerura artian.
 Ez nigaz akordatu.
 Biar dozube karta au
 Erre ta kiskeldu.

Fr. Valentin

Ama Virginiã Begoñakoari Bertso barriak

Ama Virginiã Begoñakoa,
Bizkaitarren Erregiña!
Mantupean gari artu gaituztu,
Zerman dankagu oiña.
Zure irudiak emoten densku
Fede sendo ta indarra;
Gizon modinã egingo dogu
Pekatu danen negarra.

Bertsolarien aldekoa.



Samesak

Bakoitzari berea emotea, zuzentasunaren susterra ta asierea danezkero, orain, aurtengo ostikoketa aldia edo futbol-aroa amaitu da-ta, udazkenean esan genduana, izan be, osoro aldatu ta beste modu batean jarri dala esan bear.

Arako Atletikoen-gaitik adierazo genduan orduan, makal-antzean eta nekatuta edo ez egoki ebiltzala. Baiña, uda-inguruan, ke-reixak lez edo, eldu egin dira, eta orra ba, kopa galanta ekarri deuskue Bilbora.

Emen ingurukoen poza ezta makala izan. Bai seguru be! Sekulakoak emon deutsez euren jolas-arerioari, eta aurrera, mutillak. Egundoko poza ta zaparradea izan genduan ona eldu ziranean. Ia, ba, urrengorako be, gertu egon, antziñan lez.

* * *

Udea eldu yaku, noiz edo noiz. Beti gertetan da ori, aurreratxuago edo gerotxu-ago. Gorputzeko azalak narru baltz biur-tuteko eretia izango dogu emendik aurrera.

Zelako modea izango ete da aurtengoa? Emakumeak «prenda» bat ala bi atarauko ete deuskuez ondartzetan? Bi dirala entzun dogu. Baiña oiñetakoak bere... kontuan izan bear direala.

Onelako esanak, niri neuri, basamortuko soiñuak iruditzen yataz. Bestela zoaze itsas-ertzetara. Antziñako prakaluzeta gona be-launeraiñokoak amaitu zoazan!... Gaurkoan, antziñagokoen modak ditugu. Erropa urri ta motxak; eta ez ostera merkeago egi-tearren. Jantzi bata eguzkitan egoteko dabe emakumeak; eta beste bat uretara joateko. Eztakigu irugarren bat ete daben urtetan dabeneko...

* * *

Kristautasuna indartzeko, gazteen artean sortu dira aldrak eta lagun-taldeak. Kurso batzuek egiten ditue, eta dakiguzan gauza asko ta asko, barrero gogora ekarri eta batez bere, ia noiz benetan jarriko ditugun geure gizartean.

Aspaldiko urtetan teoria franku daukagu inguruetan. Baiña emoirik edo etorkiñik lar, eztogu susmauten. Dana daia, gazteen ardu-rak eta urduritasunak gure txalo ta abegi zintzoena izan begie.

* * *

Lengo batean, or mediku batek, itzelak esan ditu guk, erri andian bizi gareanok ditugun arrisku eta kutsu eta zer kaltegarriak dirala-ta. Autsak, keiak, lurrun eta gasak, zaratak... ainbat eta ainbat gauza onuragarri ez yakuzanak gizonoi.

Batez be, Bilbo inguruko lantegiak, olak, fabrikak, kaleetako ainbeste automobillen gas zikiñak... Erri txikietan, basa geiago izango dozue kaleetan eta bideetan emengo kale ederretan baiño. Alan ta guzti be, erri aunditakoak, amaika aize zatar sartu bearra dabe euren bular eta birietara.

* * *

Zer esan aundiak atarau ditu kritikoen artean, «Cabiria-ren gabak» deritxan pelikula orrek. Emen, zer bi kontuan izan bear ditugu.

Bata, pelikula ori, berez, gauza zera ta goragarria ta irakasgarria dala, bere barruko gaia eta gunagaitik. Sakona da izan, eta ba dauka bere ondorena.

Baiña, bigarren kontua auxe da: ezin leiela edozeiñek ikusi, geiagoko barik, film ori. Umeak eta gaztetxuak inundik iñora bez. Gaia gogorra da, gordiñegia. Eta bere leku eta goraberak bardin. Begien aurrean ikusten dana baiño, bere barruko leziño zorrotza izango yake onuragarri, baiña beti be nagusiai, ez ume ta gaztetxuak.

* * *

Eguneroko paperak, lengo batean, barri onak emon deuskuez garia dala ta ez-tala. Aurrerantzean kanpotik ekarri bearrik ez-tala izango edo, frontierak igaro barik be naikoa gari izango dala ta.

Atsegiñak dira beti be, olako albistak. Ogia ugari dagoan bitartean beintzat, goserik ez-tala izango-ta...

Baleiteke ori jakiñik, asko ta asko gertu-tea laster ezkontzeko. Esakerea, beinpein, olan da izan. «Ogia merkatuten danean, ezkonduko gara...»

Bat edo batek esan lei, beste au be: «Gatza merkatuten danean...»

Bai, ba. Gatza bere, edonok eztau eukiten-ta...